

# Markina-Xemeingo IV. Trikiti Txapelketa

Markina-Xemeingo IV. Trikiti Txapelketa ospatuko da 2024ko maiatzaren 11an, Baserri Eguneko egitarauaren barruan.

Txapelketan izena emateko epea zabalik dago abenduaren 5etik urtarrilaren 5era arte. Parte hartu nahi dutenek email bat bidali beharko dute [mxtrikititxapelketa@gmail.com](mailto:mxtrikititxapelketa@gmail.com) helbidera, izen-abizenak, jaiotze data, herria eta kontakturako telefono bat zehaztuz.

Baldintzak:

- **18** urte beteta izatea edo 2024.urtean 18 urte betetzea.
- Trikitilari eta panderojole batek osatutako bikotea.

Parte hartuko duen bikote bakoitzak ondorengo piezak jo beharko ditu:

- Trikitia
- Porrusalda
- Fandangoa (epaimahaiak proposatutakoa)
- Arin-arina

Sariak ondorengoak izango dira:

1.saria: 1.000€ eta txapelak

2.saria:700€ eta oroigarriak

3.saria :600€ eta oroigarriak

4.saria: 300€

Ondorengoek 250 €ko dieta jasoko dute.

Epaimahaiak honako hauek baloratuko ditu:

-Zailtasuna: auspoaren teknika eta digitazioa

-Ejekuzioa

-Piezaren zentzua

-Erritmoa

-Kantua

-Panderojolearen lana: piezarekiko lotura.

*OHARRA: Urtarrilaren 5ean izen ematearen arabera erabakiko da txapelketaren formatu zehatza.*

Markina-Xemeinen, 2023ko abenduaren 4a